

TERRAZAKO IREKITZEA, 1 FASEA



Bezero batetik bestera, terrazako ekipamendua garbitu eta desinfektatu.

Lehenetsi erabilera bakarreko mahai-zapiak.

Jarri jendearen eskueran gel hidro-alkoholikoak.

Baxera bezeroen irismenetik at edo toki itxian biltegitratuko da.

Autozerbitzuko produktuak kenduko dira (ezpainzapitakoak,ozpin-ontziak).

Ez erabili denentzako karta berdinak, inor/ezer kutsatu ez dadin; horren orde, hobe da karta ahotsez esatea, teknologia erabiltzea, arbelak, kartelak.

Konponbide horietako bat ere ezinezkoa bada, eskaintza Gastronomikoa erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatzen den agiri batean eman behar da.

Mahaien gainazalak (estaltzen ez badira) eta, izango balitu, beso-euskarrienak erabilera bakoitzean garbitu behar dira.

KOBRANTZA

Neurri higieniko-sanitarioak

Mugikorrez edo txartelaz ordaintzea sustatuko da.

Datafonia eta saltokiko terminala desinfektatu behar dira erabili ondoren, baita bolaluma ere (boligrafoa) eragiketan sinatu behar baldin bada.

Bitarteko elektronikoen bitartez ordaindu ezin bada, gomendatzen da esku-dirutan egindako kobrantzak langile bakar batek egitea, euskarriren bat erabiliz (erretilua, ontzia edo antzekoa), inor/ezer kutsatu ez dadin.

Dirua erabili ondoren etahurrengo transakzioa hasi aurretik, eskuak desinfektatu behar dira.

TERRAZAKO ZERBITZUA

Mahaiak jarri behar dira mahai bateko eta besteko aulkien bizkarraldeen arteko distantzia gutxienez 2 metrokoa izateko moduan.

Terrazen ingurua markatzea (kordoiak, zintak) edo agintari eskudunek baimentzen duten beste edozein elementu lagungarria izan daiteke ere helburu hau betetzeko



KOBRANTZA

Urruntze sozialeko neurriak

Balioetsiko da plastikozko edo antzeko itxiturak jartzea, zurrinak edo erdi-zurrinak, erraz garbitu eta desinfekta daitezkeenak, instalatutakoan lan-ingurunea babestuta geratzeko moduan, eta txanda bakoitzean haiek garbitu behar dira.

KOMUNAK

Komunak banaka erabiliko dira gehienez, salbu eta pertsonak laguntza behar badu. Komunak egunean 6 aldiz garbituko dira gutxienez.

Komunetako sartu-irtenetarako joan-etorri kontrolatu bat ezarriko da.

Bezeroek edo/eta langileek erabiltzen dituzten komunek xaboi desinfektatzaileko banagailuak, lehertzeko papera edo/eta gel desinfektatzailea izan behar dituzte gutxienez.

Zaborrontziek eskuz ez irekitzeko eragingailua eta, barruan, poltsa izan behar dute.

Erakundeak kontsumigarriak berrezarriko dituela bermatu behar du (xaboi desinfektatzailea, paperezko toallak, etab.).